**11. artikulua.**

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

**12. artikulua.**

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun egiaztagiria edo ibilgailuaren behin betiko baja eskatzen dutenek, aldez aurretik, zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute.

2. Betebehar bera izango dute ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari ibilgailuak eraberritu dituztelako berri ematen diotenean, beti ere, eraberritze horiek zerga honen ondorioetarako ibilgailuen sailkapena aldatzen badute; orobat ibilgailua eskuz aldatzean eta ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den helbidea aldatzean.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

Matrikulazio berria bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketaren bat, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren, hogeita hamar egun baliodunеko epean, interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko:

a) Gidabaimena

b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.

c) NAN/IFK

VIII. ALDI BATERAKO XEDAPENA

Trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zerga ezartzen hasten den egunean zirkulazioaren gaineko udal zergan hobariren bat dutenek zerga honetan ere dituzten hobari berberak izango dituzte, hobariak indargabe gelditu arte, eta hobarien indarraldia finkaturik ez balego, indargabe deklaratuko da 1992ko abenduaren 31tik aurrera.

IX. AZKEN XEDAPENA

Udalaren 3. zerga ordenantza, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena, 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko du haren aldaketa edo indargabetzea onartu arte.

Amurrio, 2013ko abenduaren 30a.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

**Artículo 11.**

El pago del impuesto se efectuará dentro del segundo trimestre de cada ejercicio, salvo que se trate de los supuestos contemplados en el artículo siguiente, en los que se estará a lo que en él se dispone.

**Artículo 12.**

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del impuesto.

2. A la misma obligación estarán sujetos los titulares de los vehículos cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este impuesto, así como también en los casos de transferencia y de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del impuesto.

En caso de nueva matriculación o de modificaciones en el vehículo que alteren su clasificación a efectos tributarios, los interesados deberán presentar en la Administración Municipal, con objeto de su inclusión en la Matrícula del impuesto, dentro del plazo de treinta días hábiles desde la matriculación o modificación, los siguientes documentos:

a) Permiso de circulación.

b) Certificado de características técnicas.

c) DNI o CIF.

VIII. DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Quienes a la fecha de comienzo de aplicación del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica gozasen de cualquier clase de beneficio fiscal en el Impuesto Municipal sobre Circulación, continuarán disfrutando de los mismos en el impuesto citado en primer lugar hasta la fecha de su extinción y, si no tuviera término de disfrute, se declarará extinguida desde el 31 de diciembre de 1992.

IX. DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal Municipal nº 3 reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica entrará en vigor a partir del 1 de enero de 2014, y permaneciendo vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación.”

En Amurrio, a 30 de diciembre de 2013.– La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## AMURRIO

**6363**

**Behin betiko onarpena ematea Udalaren 11. zerga ordenantzaren aldaketari, udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa arautzen baitu.**

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 19ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen udalaren 11. zerga ordenantzaren aldaketari (13129C2394 espedientea), 2013ko azaroaren 20ko ALHAOn —133 zk.— argitaratu baitzen. Erreklamazioak aurkezteko epean halakorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtzen da, hala agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, zerga ordenantzaren testua jendaurrean jarri da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Hona hemen testua hitzez hitz:

## AMURRIO

**6363**

**Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza fiscal municipal número 11, reguladora de la tasa por la utilización privativa o aprovechamientos del dominio público municipal.**

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 19 de noviembre de 2013, y publicado en el BOTHA número 133 de 20 de noviembre de 2013, relativo a la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal Municipal nº 11, reguladora de la Tasa por la utilización privativa o aprovechamientos del dominio público municipal (expediente 13129C2394), sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con lo establecido en el artículo 17.3, del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, se eleva a definitivo dicho acuerdo, lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70.2, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y artículo 17.4 de del citado Real Decreto Legislativo 2/2004, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, con la publicación del texto modificado de la referida Ordenanza fiscal, cuyo contenido literal es el siguiente:

**UDALAREN 11. ZERGA ORDENANTZA, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDO APROBETXAMENDUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

I.- XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.**

64/1989 Foru Arauak, tasa eta prezio publikoei buruzkoak, aldatu duen azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak eta 41/1989 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko tokiko ogasunak arautzen dituenak, ezarritakoarekin bat etorriz, Udalaren jabari publikoaren erabilera pribatuagatik eta aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak ezarri dira; tasa horiek nola eta zer kasutan eskatuko diren ordenantza honetan aratu da.

II. ORDAINARAZTEN DEN GAIA

**2. artikulua.**

Tasaren ordainarazpena Udalaren jabari publikoaren erabilera pribatuak edo aprobetxamendu bereziak eragingo du.

III. SUBJEKTU PASIBOA

**3. artikulua.**

1. Udalaren jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, udalaren jabari publikoa euren onurarako erabiltzen duten pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako lurralde historikoko zergei buruzko foru arau orokorreko 35. artikuluko erakundeak.

2. Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela eta ordaindu beharreko tasari eta sarrera horiek eraikitzeko, mantentzeko, aldatzeko edo kentzeko tasari dagokienez, zergadunaren ordezkoak izango dira ibilgailuak sartzen diren finken eta lokalen jabeak; behar izanez gero, ordezko horiek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

**4. artikulua.**

Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dute ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasarik eurek zuzenean ustiatzen dituzten komunikabideen zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduengatik eta herritarren segurtasuna edo defentsa nazionala zuzenean ukitzen duten aprobetxamenduengatik.

Halaber, ez da ordaindu beharko tasarik jabari publikoaren erabilera pribatuagatik ez aprobetxamendu bereziagatik Amurrioko Udalaren kargura dauden oinarrizko zerbitzuetako bat (edateko ura, saneamendua, estolderia, herriko argiak, lurpeko udal hondakindegiak eta horien antzekoak) konpontzeko, berriztatzeko edo hobetzeko egiten denean.

IV. ZERGA OINARRIA

**5. artikulua.**

Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, kasuan kasuko eranskinean ezarritakoaren arabera.

V. ZERGA KUOTA

**6. artikulua.**

Honakoa da zerga kuota ordenantzak xedatutakoaren arabera: tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, horretarako ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatzetik ateratzen dena.

Erabilera pribatuak edo aprobetxamendu bereziak berekin badakar jabari publikoa apurtzea edo hondatzea, onuradunak bidezko tasa ordaintzeaz gainera bere gain hartu beharko ditu apurtutakoa berreraikitzeko edo hondatutakoa konpontzeko egin beharreko gastu guztiak.

Egindako kalteak konpondu ezinekoak badira, erakundeak kalteordaina jasoko du: suntsitutako ondasunen balioa edo kalte hartutako ondasunen narriaduraren zenbatekoa.

**ORDENANZA FISCAL Nº 11 REGULADORA DE LAS TASAS POR UTILIZACIONES PRIVATIVAS Y APROVECHAMIENTOS ESPECIALES DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL**

I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**

De acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 33/1998, de 23 de noviembre de Álava de modificación de la Norma Foral 64/1989 de Tasas y Precios Públicos y de la Norma Foral 41/1989 de Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, se establecen y exigen tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal, en los supuestos especificados y según las normas contenidas en esta Ordenanza.

II. OBJETO DE LA EXACCIÓN

**Artículo 2.**

Constituye el objeto de la exacción la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

III. SUJETO PASIVO

**Artículo 3.**

1. Son sujetos pasivos de las tasas por utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas, así como las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaría del Territorio Histórico de Álava, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público municipal en beneficio particular.

2. En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

**Artículo 4.**

El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

Tampoco estarán sujetas al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público en los supuestos de reparación, sustitución o mejora de los servicios básicos a cargo del Ayuntamiento de Amurrio como agua potable, saneamiento, alcantarillado, alumbrado público, residuos municipales-soterrados y otros de naturaleza análoga.

IV. BASE IMPONIBLE

**Artículo 5.**

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público, en los términos contenidos en cada Anexo.

V. CUOTA TRIBUTARIA

**Artículo 6.**

La cuota tributaría consiste, según se dispone en la Ordenanza en: la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleven aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la Tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación.

Si los daños fueran irreparables, la entidad será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

VI. SORTZAPENA

**7. artikulua.**

Tasa okupaziorako edo aprobetxamendurako lizentzia ematen denean edo okupazioa edo aprobetxamendua gertatzen denean sortuko da, kasu bakoitzeko eranskineko edo epigrafeko arauetan besterik ezarri ezean.

Tasa, izaera dela eta, aldizka sortu behar bada, eta hala ezarrita badago ordenantza honen eranskineko bidezko epigrafean, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldia urte naturala izango da, kasu honetan izan ezik: urtean zehar zerbitzua edo jarduera hasten edo amaitzen bada, zergaldia horren araberakoa izango da, eta kuota modu proportzionalean hainbanatuko da, bidezko epigrafean ezarritakoarekin bat etorriz.

VII. KUDEAKETA

**8. artikulua.**

1. Gauzak edo elementuak instalatzeko udal lizentzia beharko da, bai eta lizentzia baten bidez jarritakoak aldatzeko, berritzeko, handitzeko eta murrizteko ere.

2. Tasa ordaintzen ez duenari lizentzia kenduko zaio, besterik gabe.

**9. artikulua.**

Ordenantza honetan araututako tasak ez daude lotuta denetariko lizentziak eta baimenak emateko tasak arautzen dituen ordenantzaren arabera ordaindu behar direnekin.

**10. artikulua.**

Amurrioko Udalak zehapenak ezarri ahal izango ditu lizentziarik gabe jabari publikoa erabiltzeagatik edo aprobetxatzeagatik. Kasu guztietan, ezartzen diren zehapenak eta gertatzen diren erantzukizunak gorabehera, erabilera edo aprobetxamendua baimenduta egonez gero ordaindu beharko zen tasa ordaindu beharko da.

**11. artikulua.**

Baimenean ez bada zehazten zenbat iraungo duen aprobetxamenduak, iraupena luzatutzat joko da baja aitorpena aurkezten ez den bitartean.

**12. artikulua.**

Gauzak edo elementuak kendutakoan interesdunek erabileraren edo aprobetxamenduaren baja aitorpena aurkeztu beharko dute Amurrioko udaletxean. Udalak onartzen badu, aitorpenak hurrengo hilean sortuko ditu ondorioak, eta orduantxe hasiko da aplikatzen tasa.

**13. artikulua.**

Aprobetxamendu edo erabilera baten titulartasuna aldatuz gero, onuradunak Amurriko Udalari jakinarazi beharko dio. Jakinarazpenean titular berriaren datu pertsonalak eta egoitza zehaztu beharko ditu eta ordenantza honen ondorioetarako behar diren gainerako datu guztiak adierazi beharko ditu. Jakinarazpena bidali ezean, emandako lizentzia indargabetuko da eta beste bat eskatu beharko zaio Amurrioko Udalari. Kasu guztietan titulartasunaren aldaketaren jakinarazpena titular berriak aprobetxamenduari ekin baino lehen egin behar da.

**14. artikulua.**

Aprobetxamendurako edo erabilerarako baimena ematen den unean sortuko da ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra, aprobetxamendua edo erabilera berria bada, eta gainerako kasuetan tarifa bakoitzean adierazitako epealdiko lehen egunean.

Udal lizentziarik ez baimenik eduki ezean, erabilera edo aprobetxamendua hasten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, bidezko zehapena gorabehera.

**15. artikulua.**

Interesdunak emandako lizentzia erabiltzeari uzten badio berari egotzi ezin zaizkion funtsezko arrazoiengatik, Amurrioko Udalak

VI. DEVENGO

**Artículo 7.**

El devengo de la Tasa se producirá en el momento de la concesión de la oportuna Licencia de ocupación o aprovechamiento, o en el momento en que dicha ocupación o aprovechamiento se produzca, salvo que las normas específicas de cada anexo o epígrafe establezcan otra cosa.

Cuando la naturaleza de la Tasa exija el devengo periódico de ésta, y así se fije en el correspondiente epígrafe del Anexo de esta Ordenanza, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el periodo impositivo comprenderá el año natural, salvo en el supuesto de inicio o cese en el uso del servicio o actividad, en cuyo caso el periodo impositivo se ajustará a esta circunstancia con el consiguiente prorrateo de la cuota, en los términos que se establezcan en el correspondiente epígrafe.

VII. GESTIÓN

**Artículo 8.**

1. Para la instalación de los efectos o elementos, así como para la modificación, reforma, ampliación, reducción de los inicialmente concedidos se requiere licencia municipal.

2. La falta de pago de la Tasa determinará de forma automática la revocación de la licencia.

**Artículo 9.**

Las Tasas reguladas en esta Ordenanza, son independientes de los que corresponda satisfacer de acuerdo con la Ordenanza reguladora de las Tasas por concesión de licencias, permisos y autorizaciones de toda clase.

**Artículo 10.**

El Ayuntamiento de Amurrio podrá establecer un régimen de sanciones por la utilización o el aprovechamiento sin previa licencia. En cualquier caso, y sin perjuicio de las sanciones y responsabilidades de otro orden que pudiera proceder, se harán efectivas las cantidades que hubieran debido corresponder por esta Tasa si las utilizaciones o aprovechamientos hubieran estado autorizados.

**Artículo 11.**

Cuando la autorización no determine la duración del aprovechamiento, éste se entenderá prorrogado mientras no se presente la declaración de baja.

**Artículo 12.**

Una vez retirados lo efectos o elementos, los interesados están obligados a presentar la oportuna declaración de baja en la utilización o aprovechamiento en el Ayuntamiento de Amurrio, la cual, en caso de conformidad, tendrá efectos a partir del mes siguiente a aquel en que fue presentada, aplicándose las Tasas hasta dicho momento.

**Artículo 13.**

En caso de cambio en la titularidad de los aprovechamientos o utilizaciones el concesionario de éstos lo comunicará al Ayuntamiento de Amurrio, mencionando los datos personales y el domicilio del nuevo titular y cuantos datos sean necesarios a efectos de esta Ordenanza. En defecto de tal notificación quedará revocada la licencia otorgada, debiéndose solicitar una nueva autorización al Ayuntamiento de Amurrio. En todo caso, la notificación del cambio de titularidad deberá efectuarse antes de que el futuro titular inicie el aprovechamiento.

**Artículo 14.**

La obligación de pagar las Tasas reguladas en esta Ordenanza nace desde que se conceda la utilización o el aprovechamiento, si se trata de nuevos aprovechamientos, y el día primero de cada uno de los periodos señalados en las tarifas respectivas, en los demás casos.

En los supuestos de inexistencia de Licencia o autorización Municipal, sin perjuicio de las sanciones procedentes, la obligación de pagar nacerá en el momento de iniciarse la utilización o aprovechamiento.

**Artículo 15.**

Si el interesado desistiera de utilizar la licencia por causas fundadas, no imputables a él, podrá el Ayuntamiento de Amurrio

ordaindutako tasa itzuli ahal izango dio, baldin eta aprobetxamenduak beste aprobetxamendu batzuk eragotzi ez baditu. Itzulketak Udalak uztearen berri jakinez gero sortuko ditu ondorioak.

**UDALAREN 11. ZERGA ORDENANTZAREN 11.1 ERANSKINA, AMURRIOKO SAN ANTONGO AZOKAKO POSTUEKIN JABARI PUBLIKOA APROBETXATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

**1. artikulua. Tarifak.**

Noizbehinkakoak ez diren postuak enkante publikoaren bidez adjudikatuko dira (eskaintzak gutunazal itxian aurkeztuta); ondoren azalduko diren tarifak lizitazioaren gutxieneko prezioak dira:

1. Fruta salmentakoak ez beste postu guztiengatik erabiltzaile bakoitzak egunean 2,56 euro ordaindu beharko ditu m$^2$-ko.

2. Fruta salmentako postuagatik ordaindu beharreko tasa egunean 2,93 euro m$^2$-ko izango da.

**2. artikulua. Nola kalkulatu okupatutako azalera.**

Postuak okupatzen duen azalera kalkulatzeko haren luzera zabaleraz biderkatu behar da.

**3. artikulua.- Salbuespenak.**

Ostiraletan Kultura Etxearen aurrean egiten den baserritarren asteko azokako postuengatik ez da ordaindu beharko tasa hau. Salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da Udalari eskaera aurkeztea; eskaerarekin batera dena delako postuari dagokion indarreko udal baimena aurkeztu beharko da.

**4. artikulua. Sortzapena.**

Aprobetxamendurako edo erabilerarako baimena ematen den unean sortuko da eranskin honetan araututako tasa ordaindu beharra, aprobetxamendua edo erabilera berria bada, eta gainerako kasuetan urte naturaleko lehen egunean.

Udal lizentziarik eduki ezean, erabilera edo aprobetxamendua hasten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, bidezko zehapena gorabehera.

**11.2 ERANSKINA.- HERRITAR GUZTIEK EDO ASKOK JASOTZEN DUTEN HORNIDURA BAT USTIATZEN DUTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURRAZALA, LURPEA EDO HEGALA MODU PRIBATUAN ERABILTZEA EDO MODU BEREZIAN APROBETXATZEA**

1º. Herritar guztiek edo askok jasotzen duten hornidura bat ustiatzen duten enpresek udalerriko bide publikoetako lurrazala, lurpea edo hegala modu pribatuan erabiltzeagatik edo modu berezian aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa hauxe izango da kasu guztietan, inolako salbuespenik gabe: enpresak Amurrioko udalerrian urtero fakturatzen dituen sarrera gordinen ehuneko 1,50.

2º. TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK:

a) Epigrafe honetako tasa hiru hilean behin ordainduko da; ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko hiruhilekoa amaitu ondoko 30 egun naturaletan aurkeztu beharreko aitorpenak hartuko dira aintzat; aitorpenak honela aurkeztu behar dira:

a-1) Ezarritako epealdian (30 egun natural hiruhilekoa amaitu ondoren) hiruhileko horretako aitorpena aurkeztu behar da Udalaren Zergabilketako Zerbitzuetan, autolikidazioa egin behar da eta horren ondoriozko kuota ordaindu behar da. Hiruhilekoetako autolikidazioak behin-behinekoak izango dira eta urteko behin betikoen konturakoak.

a-2) Urteko lehen hiruhilekoan aurreko urtean Amurrioko udalerrian egindako fakturazio gordinaren aitorpena aurkeztu behar da, eta horrekin batera kanpoko auditoretza txostena ere bai.

b) Tasa honen inguruko akordio edo hitzarmen berezirik egonez gero, beraren ondoriozko tarifa aplikatuko da.

c) Eranskin honetan ezarritakoaren arabera sortzen den tasa autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango da.

devolver la Tasa satisfecha, siempre que el aprovechamiento concedido no hubiere impedido otros aprovechamientos. Tal devolución surtirá efectos, en su caso, desde la fecha en la que el Ayuntamiento tenga constancia de tal desistimiento.

**ANEXO 11.1 DE LA ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL NÚMERO 11, REGULADOR DE LA TASA POR APROVECHAMIENTO DEL DOMINIO PÚBLICO POR LA INSTALACIÓN DE PUESTOS EN EL MERCADO DE SAN ANTÓN DE AMURRIO**

**Artículo 1. Tarifas.**

Los puestos de carácter no esporádico se adjudicarán mediante pública subasta en plica cerrada, teniendo las tarifas que a continuación se señalan el carácter de precio mínimo de licitación.

1. La Tasa a abonar por cada uno de los usuarios será de 2,56 euros/m$^2$/día para cualquier puesto, excepto puestos de fruta.

2. Para los puestos de fruta la Tasa será de 2,93 euros/m$^2$/día

**Artículo 2. Cómputo de la superficie ocupada.**

Para el cómputo de la superficie ocupada se multiplicará la longitud del puesto por su anchura.

**Artículo 3. Exenciones.**

Quedan exentos de esta tasa los puestos del Mercado Semanal de Baserritarras celebrado los viernes frente a la Casa de Cultura. Para ser beneficiario de la exención se deberá solicitar la misma, presentando la correspondiente tarjeta de autorización municipal en vigor, referido a este tipo de puesto.

**Artículo 4. Devengo.**

La obligación de pagar las Tasas reguladas en este Anexo nace desde que se conceda la utilización o el aprovechamiento, si se trata de nuevos aprovechamientos, y el día primero de cada año natural, en los demás casos.

En los supuestos de inexistencia de Licencia Municipal, sin perjuicio de las sanciones procedentes, la obligación de pagar nacerá en el momento de iniciarse la utilización o aprovechamiento.

**ANEXO 11.2.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LAS VÍAS PÚBLICAS MUNICIPALES, EN FAVOR DE EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE SUMINISTROS QUE AFECTEN A LA GENERALIDAD O A UNA PARTE IMPORTANTE DE LOS VECINOS**

1º. Cuando se trate de tasas por utilización privativa o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario, el importe de aquellos consistirá, en todo caso y sin excepción alguna, en el 1,50 por ciento de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtenga anualmente en el término municipal de Amurrio dichas empresas.

2º. NORMAS DE APLICACIÓN DE ESTA TARIFA:

a) La determinación de la tasa regulada en este epígrafe se hará trimestralmente en vista de las declaraciones que dentro del plazo de 30 días naturales a contar del trimestre vencido, habrán de presentar las empresas afectadas de la siguiente forma:

a-1) En el plazo indicado (30 días naturales desde el fin del trimestre) deberán presentar (en los Servicios de Recaudación del Ayuntamiento) la declaración, y efectuar la autoliquidación correspondiente, el trimestre anterior y realizar el ingreso de la cuota resultante. Estas autoliquidaciones trimestrales tendrán la consideración de provisionales y a cuenta de las definitivas anuales.

a-2) Dentro del primer trimestre de cada año deberán presentar declaración acompañada de informe de auditoría externa de la facturación bruta realizada en el Municipio de Amurrio y correspondiente al año inmediatamente anterior.

b) Si existieran acuerdos o convenios especiales referidos a esta Tasa, se aplicará la tarifa que de los mismos se deduzca

c) La tasa devengada en base a este Anexo podrá exigirse en régimen de autoliquidación.

d) Hornidura horiek ustiatzen dituzten enpresen artean sartuko dira hornigaiak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak. Tasa kalkulatzeko araubide berezi hau ez zaie aplikatuko telefono mugikorraren zerbitzuei.

e) Eranskin honetan xedatutakoaren ondorioetarako, fakturazioaren sarrera gordinak hauexek dira: erakunde batek Amurrioko udalerrian egindako zerbitzuen kontraprestazio gisa jasotako sarrera guztiak, berari egotzi ahal zaizkionak. Hori dela eta, sarrera gordinetan ez dira zenbatu behar egindako zerbitzuek jasandako zeharkako zergak, ez eta hirugarrenen kontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, baldin eta tasa kalkulatzeko araubide berezi hau aplikatzen zaion erakundearen sarrera propioak ez badira.

f) Hornidurak egiteko eurenak ez diren sareak erabiltzen dituzten enpresek fakturazioaren sarrera gordinetatik kendu behar dituzte beste enpresa batzuen sareetara sartzeagatik edo haiekin konektatzeagatik ordaindutako kopuruak. Aldiz, sare horien titular diren enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetan sartu behar dituzte kontzeptu horiengatik jasotako kopuruak.

g) Araubide berezi hau aplikatzearen emaitzako zenbatekoa ezin zaie jasanarazi eranskin honetan aipatzen diren hornidura zerbitzuen erabiltzaileei.

h) Eranskin honetan ezarritako tasak bateragarriak dira Udalaren eskumeneko jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko ezartzen diren beste batzuekin, baldin eta eranskin honetan aipatutako enpresak horien subjektu pasibo badira, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, tokiko ogasunak arautzen dituenak, 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, ez dituzte ordaindu beharko udalerriko bide publikoetako lurrazalean, lurpean edo hegalean eratutako erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren ondoriozko beste tasa batzuk, tasa hau ordaindu dute eta.

**UDALAREN 11. ZERGA ORDENANTZAREN 11.3 ERANSKINA, IBILGAILUAK FINKETARA ETA APARKALEKUETARA SARTZEKO BIDEEN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

1. Aprobetxamendua edo erabilera pribatua: motak

1. Familiabakarreko etxebizitzetako eta antzeko etxebizitzetako pasabideak eta eraikin ofizialetakoak, metro linealeko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian):

1.1 Aparkatzeko erreserbarik gabe: 0,51 euro

1.2 Aparkatzeko erreserbarekin: 0,82 euro

2. Erkidegoaren garajera sartzeko pasabideak, erabilera partikularrekoak, metro linealeko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian):

2.1 Lurzatiko, aparkatzeko erreserbarik gabe: 0.31 euro

2.2 Lurzatiko, aparkatzeko erreserbarekin: 0,49 euro

3. Merkataritzarako pasabideak eta obretan jartzen direnak, metro linealeko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian):

3.1 Aparkatzeko erreserbarik gabe: 3,06 euro

3.2 Aparkatzeko erreserbarekin, aldi baterako: 4,08 euro

3.3 Aparkatzeko erreserbarekin, behin betiko: 4,90 euro

4. Larrialdietarako irteerak eta eskatu ahala jartzen diren pasabideak (Ibilgailuen Pasabideei buruzko Ordenantzako 5. artikuluan aipatzen dira), metro linealeko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian):

4.1 Aparkatzeko erreserbarik gabe: 3,06 euro

4.2 Aparkatzeko erreserbarekin, aldi baterako: 4,08 euro

4.3 Aparkatzeko erreserbarekin, behin betiko: 4,90 euro

5. Aurreko kasuetan sartzen ez diren aparkatzeko erreserbak, metro linealeko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian):

5.1 Aparkatzeko erreserbarekin, aldi baterako: 1,02 euro

5.2 Aparkatzeko erreserbarekin, behin betiko: 1,84 euro

2. Tarifak aplikatzeko arauak:

a) Espaloien zabalera ertz beheratuaren metro linearen arabera zehaztuko da, beheratuta dagoen kasuan. Espaloiaren ertza ez badago beheratuta, ez eta espaloia kenduta ere, dena delako lokalera edo orubera sartzeko zuloaren luzera erabilgarria izango da, oso-osorik.

d) Se incluirán entre las empresas explotadoras de estos servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos. No se incluirán en este régimen especial de cuantificación de la Tasa los servicios de telefonía móvil.

e) Se entenderá por ingresos brutos procedentes de la facturación, a efectos de lo dispuesto en este Anexo, aquellos que, siendo imputables a cada entidad, hayan sido obtenidos por la misma como contraprestación por los servicios prestados en el término municipal de Amurrio. No se incluirán entre los ingresos brutos, a estos efectos, los impuestos indirectos que graven los servicios prestados, ni las partidas o cantidades cobradas por cuenta de terceros que no constituyan un ingreso propio de la entidad a la que se le aplique este régimen especial de cuantificación de tasa.

f) Las empresas que empleen redes ajenas para efectuar los suministros deducirán de sus ingresos brutos de facturación las cantidades satisfechas a otras empresas en concepto de acceso o interconexión a las redes de las mismas. Las empresas titulares de tales redes deberán computar las cantidades percibidas por tal concepto entre sus ingresos brutos de facturación.

g) El importe derivado de la aplicación de este régimen especial no podrá ser repercutido a los usuarios de los servicios de suministro a que se refiere este Anexo.

h) Las tasas reguladas en este Anexo son compatibles con otras tasas que puedan establecerse por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia municipal, de las que las empresas a que se refiere este Anexo deban ser sujetos pasivos, conforme a lo establecido en el artículo 23.1 b) de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, quedando excluida, por el pago de esta Tasa, la exacción de otras tasas derivadas de la utilización privativa o el aprovechamiento especial constituido en el suelo, subsuelo y vuelo de las vías públicas municipales.

**ANEXO 11.3 DE LA ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL NÚMERO 11, REGULADOR DE LA TASA POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTOS ESPECIALES POR LA ENTRADA DE VEHÍCULOS AL INTERIOR DE LAS FINCAS Y RESERVAS DE APARCAMIENTO**

1º Tipo de aprovechamiento o utilización privativa

1. Pasos de uso particular a vivienda unifamiliar o similar, y para edificios oficiales, por metro lineal o fracción y por mes o fracción:

1.1 Sin reserva de estacionamiento: 0,51 euros

1.2 Con reserva de estacionamiento: 0,82 euros

2. Pasos de uso particular a garaje comunitario, por metro lineal o fracción y por mes o fracción:

2.1 Por parcela, sin reserva de estacionamiento: 0.31 euros

2.2 Por parcela, con reserva de estacionamiento: 0,49 euros

3. Pasos de uso mercantil, comercial o con ocasión de obras, por metro lineal o fracción y por mes o fracción:

3.1 Sin reserva de estacionamiento: 3,06 euros

3.2 Con reserva de estacionamiento temporal: 4,08 euros

3.3 Con reserva de estacionamiento permanente: 4,90 euros

4. Salidas de emergencia, y otros motivos con carácter discrecional recogidos en el art. 5 de la Ordenanza de Vados por metro lineal o fracción y por mes o fracción:

4.1 Sin reserva de estacionamiento: 3,06 euros

4.2 Con reserva de estacionamiento temporal: 4,08 euros

4.3 Con reserva de estacionamiento permanente: 4,90 euros

5. Reservas de aparcamiento que no estén sujetas a los casos anteriores, por metro lineal o fracción y por mes o fracción:

5.1 Con reserva de estacionamiento temporal: 1,02 euros

5.2 Con reserva de estacionamiento permanente: 1,84 euros

2º Normas de aplicación de las tarifas:

a) El ancho de los pasos de acera se determinará por los metros lineales de bordillo rebajado en los casos en que exista dicho rebaje. Si el bordillo de la acera no estuviera rebajado, ni suprimida la misma, la medida será, en toda su extensión, la de la longitud útil del hueco de entrada al local o solar de que en cada caso se trate.

b) Tarifa hauek ehuneko 50eko errekargua jasango dute 3 tonatik gorako kamioiek, autobusek eta atoiek erabiltzen dituzten pasabideei aplikatzean.

c) Pasabideak eta aparkaleku erreserbak instalatzeko, zaintzeko, berritzeko eta kentzeko gastuak eta haiek seinalizatzeko gastuak eskatzaileek ordaindu beharko dituzte; horretan Udalaren Ibilgailuen Pasabideei buruzko Ordenantzan xedatutakoa aplikatuko da.

d) Erkidegoen aparkalekuen kasuan jabeen erkidegoa da subjektu pasiboa. Nolanahi ere, erkidegoak jabeei ordainarazi ahal izango die tasa.

### 11.4 ERANSKINA.- ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN POSTUAK, BARRAKAK, SALMENTA ETXOLAK, IKUSKIZUNAK EDO ATRAKZIOAK JARTZEA

Tasa ordaindu beharra aprobetxamendu berezirako udal baimena edo lizentzia ematen denean sortzen da, edo aprobetxamenduari ekiten zaionean, baimenik gabe egiten bada, instalazioak jendearentzako irekita zein itxita egon.

Lurrak okupatzeko baimena jasotzen duten pertsonek eta erakundeek ordaindu behar dute tasa, edo aprobetxamendua egiten dutenek.

Postua edo aprobetxamendua baimenik gabe instalatzea iruzur kalifikazioko arau haustea izango da, bai eta baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea ere, eta zehapena isuna izango da, hain zuzen ere, baimendutakoaren gaineko azalerari edo baimendu gabeko azalerari dagokion tasaren zenbatekoa halako bi.

1. epigrafea.- Pertsona fisikoek eta herri onurakotzat jota ez dauden pertsona juridikoek 2,40 euroko tasa ordaindu behar da egunean metro linealeko ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak.

2. epigrafea.- Herriko jaietan barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak edo atrakzioak instalatzeagatik, kasuan kasuko deialdian ezartzen den lizitazio sistemaren araberako tasa ordaindu beharko da.

3. epigrafea.- Bi prozedura erabil daitezke herriko jaietan ez beste egun batzuetan lurrak lagatzeko barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak eta atrakzioak instalatzeko asmoarekin: enkantea, gehikada irekien bitartez, edo zuzenean. Lagapen horiengatik 0,41 euro ordaindu beharko dira egunean okupatutako metro karratuko, eta gutxieneko kuota 21,38 euro egunean izango da; bi kopuru horietatik handiena ordainduko da.

4. epigrafea.- Herri onurakotzat edo gizarte interesekotzat jotako pertsona juridikoek 0 euroko tasa ordaindu beharko dute egunean metro linealeko informazioa zabaltzeko instalatzen duten postu bakoitzeko eta ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antzekoak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak. Egoitza Amurrion duten elkarteek, azken hamabi hiletan jardunerako Udalaren dirulaguntza jaso dutenek, ez dute zertan eduki onartuta herri onurako izatea tasarik ez ordaindu behar izateko, baina ezinbestekoa da lurren okupazioa lotuta egotea dirulaguntzaren xede diren jarduerekin edo beraien finantzaketarekin.

5. epigrafea.- Amurrioko Udalak, haren mendeko erakunde autonomoek eta sozietatie publikoek antolatzen dituzten erakusketak edo azokak direla 0 euroko tasa ordaindu beharko dute egunean metro linealeko informazioa zabaltzeko instalatzen duten postu bakoitzeko eta ondoko gaiak saltzeko edo erakusteko jartzen duten postu bakoitzeko: konfiturak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak edo antze-

b) Las tarifas establecidas experimentaran un recargo del 50 por ciento cuando se trate de pasos utilizados por camiones de más de 3 Tm. de peso total, autobuses y remolques.

c) Los gastos de instalación, conservación, reforma, retirada de pasos y reserva y prohibición de aparcamientos, así como la señalización de los mismos, serán por cuenta y cargo de los solicitantes y se ajustarán a las disposiciones establecidas en la correspondientes Ordenanza Municipal de Vados.

d) En los casos de los garajes comunitarios ostentan la condición de sujetos pasivos las Comunidades de Propietarios, con independencia de la posibilidad de repercutir la tasa a los propietarios de las parcelas.

### ANEXO 11.4.- PUESTOS, BARRACAS, CASETAS DE VENTA, ESPECTÁCULOS O ATRACCIONES SITUADOS EN TERRENOS DE USO PÚBLICO

La obligación de contribuir nace con la concesión de licencia o permiso municipal para el aprovechamiento especial, o desde el momento en que se inicie, si se hiciese sin la oportuna autorización, independientemente de que se hallen abiertas o cerradas al público las instalaciones correspondientes.

Están obligadas al pago las personas o entidades a quienes se conceda la ocupación de los terrenos o en su caso, los que efectivamente realicen el aprovechamiento.

Constituye infracción calificada como defraudación, la instalación sin permiso de los puestos y aprovechamientos y la ocupación de mayor superficie de la autorizada que se sancionará con multa del duplo de las Tasas correspondientes a la superficie excedida o que no cuente con autorización.

Epígrafe 1.- Por la instalación de cada puesto para la venta o exposición de confituras, frutos secos, helados, barquillos o similares; libros, revistas y análogos; plantas, flores y semillas de frutas, hortalizas y otros alimentos, naturales o elaborados; aves, huevos y caza, así como por cada puesto para la venta o exposición de artículos de mercería, tejidos, prendas de vestir, bisuterías, quincalla, ferretería, cuadros, baratijas, juguetes y objetos diversos por personas físicas o jurídicas no declaradas de utilidad pública, se pagará al día 2,40 euros/metro lineal.

Epígrafe 2.- Por instalación de barracas, casetas, espectáculos y atracciones con motivo de las fiestas del municipio, se pagará la Tasa que resulte del sistema de licitación convocado, en su caso.

Epígrafe 3.- La cesión de terrenos para la instalación de barracas, casetas, espectáculos y atracciones que se autoricen en fechas distintas al periodo de fiestas oficiales del Municipio, podrá efectuarse por el procedimiento de subasta, por pujas a la llana, o directamente en cuyo caso, se pagará 0,41 euros por cada día y metro cuadrado de superficie ocupada, con una cuota mínima de 21,38 euros al día, prevaleciendo la mayor de las dos.

Epígrafe 4.- Por la instalación de cada puesto para la venta o exposición de confituras, frutos secos, helados, barquillos o similares; libros, revistas y análogos; plantas, flores y semillas de frutas, hortalizas y otros alimentos, naturales o elaborados; aves, huevos y caza, así como por cada puesto para la venta o exposición de artículos de mercería, tejidos, prendas de vestir, bisuterías, quincalla, ferretería, cuadros, baratijas, juguetes y objetos diversos, así como puestos de carácter informativo, por personas jurídicas declaradas de utilidad pública o interés social, se pagará al día 0 euros/metro lineal. No será necesaria tal declaración de utilidad pública para todas aquellas asociaciones con sede social en Amurrio, cuyas actividades hayan sido objeto de subvención por parte del Ayuntamiento de Amurrio durante los últimos doce meses, siempre que la ocupación a realizar esté relacionado con las actividades subvencionadas o su financiación.

Epígrafe 5.- Por la instalación de cada puesto para la venta o exposición de confituras, frutos secos, helados, barquillos o similares; libros, revistas y análogos; plantas, flores y semillas de frutas, hortalizas y otros alimentos, naturales o elaborados; aves, huevos y caza, así como por cada puesto para la venta o exposición de artículos de mercería, tejidos, prendas de vestir, bisuterías, quincalla, ferretería, cuadros,

koak; liburuak, aldizkariak eta antzekoak; landareak, loreak eta fruta, barazki eta bestelako elikagaien haziak, naturalak nahiz prestatuak; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak; josteko gaiak, ehunak, arropak, imitaziozko bitxiak, kinkila, burdinak, koadroak, zirtzilkeriak, jostailuak eta denetariko objektuak.

**11.5 ERANSKINA.- KIOSKOAK BIDE PUBLIKOETAN**

Bide publikoak kioskoekin eta antzeko instalazioekin okupatzea da tasaren xede.

Tasa ordaindu beharra lizentzia ematen denean sortuko da; lizentziarik eskatzen ez bada, lurzoru publikoa okupatzen denean sortuko da.

Bide publikoa aurrean aipatutako instalazioekin okupatzeko baimena eskuratzen duten pertsona fisiko zein juridikoek ordaindu behar dute tasa. Tasa ordaintzeko erantzukizun solidarioa edukiko dute titular ez izan arren instalazioan egiten den jardueran ari direnek.

Urtarrilaren batean instalatuta dauden kioskoengatik urteko tasa ordainduko da eta urtean zehar instalatzen diren kioskoengatik urtea amaitu ondoko hilei dagokien kopurua.

Iraunkorrak ez diren okupazioengatik ordaindu beharreko tasa lizentzian ezartzen den aldiaren araberakoa izango da. Lurrak okupatzen badira Udalari lizentzia eskatu gabe, tasa hau kalkulatzeko ez beste ezertarako instalazioak hurrengo abenduaren 31ra artekoa dela pentsatuko da; nolanahi ere, gerta liteke Udalak lizentzia ez ematea.

Eguneko kuotak okupaziorako baimena ematen denean ordaindu behar dira, eta ezinbestean postua instalatu baino lehen. Hileko kuotak eta urteko kuotak ezin dira zatitu aprobetxamenduaren iraupenaren arabera. Hileko kuotak hileko lehen bost egunetan ordaindu behar dira eta urtekoak urteko lehen hiru hiletan.

Aldi baterako postua instalatzea tasa ordaindu gabe zergen arloko arau haustea izango da; arau hausleari 120 euroko isuna ezarriko zaio, bidezko kuota kobratzeaz gainera.

Kioskoarekin okupatutako azalera kalkulatzeko okupatutako lurzoruari beraren hegala gehitu behar zaio.

Tasaren zenbatekoa deialdiko lizitazio sistemaren araberakoa izango da edo zuzenean ezarriko da; lizitazioan ezarriz gero, tasaren zenbatekoa lizitazioaren gutxieneko prezioa izango da.

TARIFA

1º.- Amurrioko Udalak onura publiko edo gizarte interesa aitortu ez dien kioskoak (merkataritzako xedea gorabehera) udalaren jabari publikoko lurzorua okupatzeagatik: 6,76 euro metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).

2º.- Amurrioko Udalak onura publiko edo gizarte interesa aitortu dien kioskoak (merkataritzako xedea gorabehera) udalaren jabari publikoko lurzorua okupatzeagatik: 0,00 euro metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).

3º.- Mahaiak, orgak, taberna barrak eta antzekoak instalatzeagatik noizean behin freskagarriak, ardoa, garagardoak, askariak eta antzekoak saltzeko: 15,18 euro metro karratuko (edo zatikiko) egunean (edo zatikian).

**UDALAREN 11. ZERGA ORDENANTZAREN 11.6 ERANSKINA, AMURRIOKO JABARI PUBLIKOA MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN MODU PRIBATUAN ERABILTZEAGATIK EDO MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

Artikulu bakarra.- Udalerriko jabari publikoan mahai hankabakarrak, mahaiak, aulkiak eta antzekoak jartzeagatik tarifa hauek ordaindu beharko dira:

1. Albotik mugatuta edo multzo bakarra eratuz zenbait elementu jartzeagatik sei hilerako emandako baimenetarako, tarifa hauek ezarriko dira, instalazioak kokatzen diren zerga zonaren arabera JEZaren ondorioetarako (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga):

baratijas, juguetes y objetos diversos, así como puestos de carácter informativo, con motivo de exposiciones o ferias organizados por el Ayuntamiento de Amurrio, organismos autónomos y sociedades públicas dependientes del mismo, se pagará al día 0 euros/metro lineal.

**ANEXO 11.5.- QUIOSCOS EN LA VÍA PÚBLICA**

Será objeto de la Tasa la ocupación de la vía pública con quioscos e instalaciones semejantes.

La tasa se devengará desde el otorgamiento de la licencia o desde la ocupación efectiva del suelo público si no se hubiese solicitado la oportuna licencia.

Están obligadas al pago las personas naturales o jurídicas, titulares del permiso de ocupación de la vía pública, con las expresadas instalaciones. Responderán solidariamente las personas, que no siendo titulares, regenten la actividad que se desarrolla en la instalación.

El pago será anual para los quioscos instalados el día uno de enero de cada año, y por los meses hasta el final de año para los que se instalen en el transcurso del mismo.

Las ocupaciones que no tengan carácter de permanencia devengarán la tasa correspondiente al periodo para el que se otorgue la licencia. Si la ocupación se realizase sin haber solicitado la oportuna licencia se entenderá, a los solos efectos del cálculo de la tasa, hecha la instalación hasta el 31 de diciembre posterior más próximo, sin perjuicio de que la misma pueda ser denegada.

Las cuotas diarias se percibirán simultáneamente a la concesión del permiso de ocupación y, en todo caso, con anterioridad a la instalación del puesto. Las cuotas mensuales y anuales son improrrateables, cualquiera que sea el tiempo del aprovechamiento, y su pago habrá de realizarse dentro de los cinco primeros días de cada mes en las Tasas mensuales, y dentro de los tres primeros meses de cada año para las anuales.

La instalación de puestos eventuales sin el previo pago de la Tasa constituye infracción tributaria que se sancionará con multa de 120 euros, que no impedirá el cobro de la cuota correspondiente.

Para la determinación de los metros cuadrados ocupados la medición de efectuará sumando a la superficie ocupada en suelo la superficie del vuelo.

La tasa a pagar será la que resulte del sistema de licitación convocado, o directamente, teniendo la tarifa establecida a continuación, para el primer supuesto, carácter de precio mínimo de licitación

TARIFA

1º.- Por la instalación de quioscos, cualquiera que sea su destino comercial, no declarados de utilidad pública o interés social por el Ayuntamiento de Amurrio, ocupando suelo de dominio público municipal: 6,76 euros por metro cuadrado o fracción y por mes o fracción.

2º.- Por la instalación de quioscos, cualquiera que sea su destino comercial, declarados de utilidad pública o interés social por el Ayuntamiento de Amurrio, ocupando suelo de dominio público municipal: 0,00 euros por metro cuadrado o fracción y por mes o fracción.

3º.- Por la instalación de mesas, carros, barras de bar o instalaciones análogas, destinados eventualmente a la venta de refrescos, vino, cervezas, meriendas y similares, 15,18 euros por metro cuadrado o fracción y por día o fracción.

